

Nafarkaria

• ostirala • 1998ko urtarrilaren 2a

Egunkaria

Gehigarri honetan




Betelu • Burdinola berreskuratzeko eginahala.

Rafael Leoz • 30 urte Iruñeko katedraleko ezila jotzen.

Datorrena datorrela

Urte zaharraren balantzea egin
eta urte hasi berrian nahi

luketenaz
mintzatu dira
orriotan
zenbait nafar,
izen handiko
eta ez hain
handiko.
Nafarroako
Jauregiko
pinuaren
adarrak
bezalakoak
dira haien
iritziak eta
asmoak:
bakarrak eta
errepikaezinak.



• LUIS AZANZA



Betelu • Burdinola zaharra lehengoratu nahian

Itxura hobetu eta gero, antzina nola funtzionatzen zuen erakutsiko da

Plazaola Partzuergo

Turistikoaren ekimen berri honi esker, burdinola zahararen itxura hobetuko da, aspaldian burdina nola egiten zen azaldu ahal izateko.

Gaur egun larrez beterik eta erdi hautsita dagoen arren, burdinola zahar hau askoz okerrago egon izan da. Duela gutxi arte, Irulegiren maldan den Ziarrosin zelaietik pasatzerakoan ez zitekeen han azpian ezkuturik zegoena ere ikusi. Goikola burdinolako pareta zaharrak guztiz estaliak zeuden, larre eta basalandareak zirela eta. Gaur egun, burdinola izandako eraikin erdi eroria denon bistan dago, baina lekua oso arriskutsua denez, ezin hurbildu haraino. Paretak erdi erorian daude, zuloak badira nonahi... Hori horrela izanik, Plazaola Partzuergo Turistikoak eta Beteluko Udalak hobetzeko asmoa dute. Burdinolaren ondoan zenbait informazio panel jarriko dira, burdinola zaharrei buruzko informazioa eman ahal izateko. Horrela, inguruan bultzatu nahi den turismoak beste erakargarri bat izango luke.

Garai txarrak bai, baina on askoak ere izan ditu burdinolak. Mende honen erdialdean jende



Beteluko burdinola erortzeaz dago egun.

• URKO ARISTI

ugari joaten zen bertaraino. Horren lekuko, ondoan zegoen bainuetxearen iragarkietan ageri ziren burdinolaren postalak. Garai hartan, bezero garrantzitsuak izaten zituen bainuetxeak (Alfonso XIII.a ere bertan izan zen), eta, haien ibilaldietan, burdinola derrigorrezko geldigunea izaten zen.

Historia luzea

Bainuetxearenarekin oso lotua dago burdinolaren historia. Juan Antonio Zabala izan zen sortzailea, gerora bainuetxea eraikiko zuen gizon bera. Gainera, behin

burdin lana bukatuta, bainuetxea argiztatzeko beharrezko zen argindarra sortzen zuen, mende honen hasieran. Horri esker, Beteluko bihurtu zen Espainia guztian bere argindar propioa izan zuen lehen bainuetxea.

Goikola burdinola ondoko Kaldarola martineterekin batera sortu zen, oso momentu bitxian. 1828. urtean jarri zuen martxan Juan Antonio Zabalak, beste bi bazkiderekin batera. Garai hartan herrialdeko gainontzeko beste burdinolak ixten ari ziren, ordurako itxiak ez bazeuden.

Garai zail haietan Beteluko burdinola aurrera nola atera zen azaltzeko, bi arrazoi nagusi daude: lehenik eta lehen, orduan zen gerrate arteko garaiak sortutako arma eta burdin beharra, eta batez ere, Nafarroako Erreinuak egindako kontzesioa. Kontzesio hori zela eta, Betelun egin ziren Nafarroako azken txanponak: Beteluko Tresenak. Orduan Nafarroak urrezko eta zilarrezko txanponak bazituen, baina oso gutxi. Gehienak kobrezkoak ziren, eta horietako garrantzitsuenak Betelun egiten ziren.

Beteluko martinetean, hain zuzen ere.

Hasierako haiek oso garai oparoak izan ziren Goikolarentzat, baina gerora une latzak ere izan zituen. Besteak beste, Frantziatik ekarritako burdinak arazo ugari sortu zizkion. Hango burdina hemen erraz sartzen zuten, baina hemengoak zailagoa zuen harako bidea, muga zergak zirela eta.

XIX. mendearen hasieran, Araxes ibaiko ura (zenbait idazkitan Azpiroz ibai esaten zai) gauza askotarako erabiltzen zen. Betelun bertan baziren errota eta batana ere. Izan ere, Beteluko Udalak burdinola eraikitze baimena eman zuen orduan, eta baldintza baka-

rra jarri zuen: lehorterik gertatuko balitz, eta ura faltako balitz, errota eta batanak izango luketela lehentasuna uraren erabilpenean. Baldintza hori jartzearekin batera, urrezko hamar ontza eskatu zizkien hiru bazkideei.

XIX. mendearen hasieran beteluar gehienak nekazaritzaz bizi baziren ere, eskulangile ugari ziren, eta baita burges industrial ugari ere. Burgesak izan ziren, hain zuzen, bainuetxea, herriko jauregiak eta burdinola eraiki zituztenak. Haien bizimodua orain berriro ezagutu ahal izango dugu, burdinola konpontzeko lanak bukatzen dituztenean.

→ Urko Aristi

mapa mutuak

PELLO LIZARRALDE



Txikitan ez ninduten zirkora eramaten. Futbol zelaiaren eremu erre eta soilduan paratzen zituzten karpa higatua, lehoi beti tristearen kaiola eta karabanak. Gero karriketan barrena ibiltzen ziren ikuskizuna iragartzen, eta gonbidapenak omen ziren paper koloretsuak uzten zizkiguten eskolan. Alabaina, ni ez ninduten eramaten, eta oroitzen naiz, behin, astero zinemara eramaten gintuen amari galde-tu niola zergatia, eta inoiz ahanzi ez dudana erantzuna eman zidala: «Zirkoa oso tristea da».

Orain dudarik ere ez dut hura ere, beste asko bezala, hobebeharrez egina zela. Babestua eta maitatua sentitu nintzen. Hala ere, ez zen eta ez da arrazoi nahikoa zeruan eta lurrean den guztia atzeman nahi duen haur batentzat. Hamabost bat urteren buruan frogatu ahal izan nuen egia zela. Moskun ikusi nuen nik lehendabizikoz zirkoa. Puxkinen obra batean oina-

Lezioak

rritutako ikuskizuna jokatu zuten, eta bai, tristea zen, baina istorio bat entzun duen edonork badaki zein ederra eta gozoa izan daitekeen tristura.

Izuak jota dagoen guraso asko ikusten dut inguruan, behar ez den lekura begira gehienetan. Helburuak eta egitasmoak ezartzeko joera daukate, ikasbi-deak ematen ahalegintzen dira. Alfer-alferrik ari dira. Azken batean izututa dagoenak ez du izua baino kutsatzen, eta hurrek eta nerabeek ez dute horrelakorik nozitu nahi izaten, ez eta leziorik onartzen. Denbora daukate eta ez dute besterik eskatzen. Espezial azaldu zuen kontu hau izena gogoratzen ez dudana batek: «Hogeita urte nituelarik esan zidaten: ikusiko duk hogeita hamar urte betetzen dituanen... Eta hogeita hamar bete nituenean: ikusiko duk berrogei betetzen dituanen... Laurogei ditut eta ez dut ezer ikusi.»

Guraso asko, garai batean, politikaren aitzakiaz

baliatzen ziren («horrek ez dik jaten emanen»), egun langabezia edo beste edozein mamuz. Mamuak, ordea, ez dira bilatzen eta hautatzen, ibilian ateratzen zaizkigu bidera. Horregatik, beldurra eragindako futbolista zoriontsuaren ametsa saihestea lortzen duen haurrak gutxi uste dugu lekuan aurki ditzake tristura eta ospela: izan liteke zirkora, edo Teleberrin, edo legebiltzarrean... Irakasten dugun gehiena nahi gabe irakasten dugu, nora doan ez dakienak nekez seinala baitezake bide zuzen bat.

Hementxe gaude, urte franko dira deusik konprenitzen ez dugula, eta, zahartzeak ez dut uste hori konpon dezakeenik. Ez konprenitzea ez zait hain larria, konforme naiz, orain arte bezala, ia eguneroko gauza harrigarriak izanez gero. Aldika ez zait aski, baina honela filmeak sarritan diferentia dirudi, edo bertsoak nahikoa txukuna.

Altsasu

Neska-mutiko gazteak zintzarriekin aterako dira Errege bezperan

ERREGE BEZPERA EGUNEAN OSO hedaturik dagoen ohitura da fali edo zintzarriekin herriko karriketan gora eta behera ibiltzea. Beste leku batzuetan bezala, Sakanan ere ezaguna da ohitura. Zenbait herritan egun arte bizirik iraun du tradizio honek; Altsasun, aldiz, 1976an nahita berreskuratu zen eta gaur arte urterotero egin da geroztik.

Erregebezpera egunean Altsasuko neska-mutiko gazteak Foru enparantzan elkartzen dira arratsaldeko seietan. Bildu ahala, 1996ko zintzarri jotzaileen erregea, Miguel Javier Mendoza, taldearen aurrean abiatuko da makila, kaikua eta txapela soinean dituela. Herriari lehenengo bira eman eta gero, Foru enparantzan gelditune bat egingen dute. Neska-mutikak ilaretan daudelarik, zintzar jolei opil bana ematen zaie. Opilak jan eta gero 1997ko zintzar joleen errege edo erregina nor izanen den jakingo da. Banatzen diren opilen artean bakar batek du zilarrezko fale txikia; beraz, banaketan opil berezia ateratzen da. 97ko errege edo erregina. Zilarrezko zintzarria eskuan duela, plazako espalpean aurtengo zintzar joleen errege-erregina izendatuko dute. Horrela, lazko erregearen arropak soinean dituela, errege-erreginaren betebeharrak hartuko ditu. Berriz ere, karriketan zehar abiatuko dira zintzar joleak izendatu berriarekin. Ekialdeko Erregeen bila.

Altsasuko kabalgotarekin bat egingen du ondoren zintzar joleen taldeak. Kabalgotaren buruan abiatuko dira lasterka zintzar

Ituren



JACOBA MANTEROLA

Errege bezpera: Inauterien atariko

Ilbeltzaren azken asteburuan Ituren eta Zubietan ospatzen diren inauterien aitzindaria da Errege bezperarekin Iturengo haurrak zintzarriekin kalera ateratzea. Garai batean, joaldun izan aurreko lehen saioa izaten zen gazteenentzat, eta egun ohitura bihurtu da. Bazkalondoa haurrak herriko karriketan barna ibiliko dira ohiko joaldunak baino joare txikiagoekin. Gauean, berriz, helduagoen txanda izanen da. Inauterietan aterako diren joaldunak afaritan bilduko dira Zubietan, Ituren eta Iturengo Aurtitz auzoan. Gero, zubietarrak Aurtitzera hurbilduko dira eta handik Iturenara joanen goizaldeko 3:00ak aldera, herriari buelta ematera. Horrela, aurretik jakina badute ere, inateriak urtero bezala urtarilaren azken asteburuan egingen direla hiltzartuko dute.

joleak, bideak libratu, otsoak uxatu eta Erregeen etorrera herrian barna aditzera emateko. Ohikoa denez, kabalgotan Lanbide Heziketako institututik abiatuko da 19:30etan. Baina aurtur, Kaputxinoetan bukatu beharrean, autobideko obrak direla-eta Geltoki auzora pasatzeko zubirik ez dagoenez, Zelandiko eskoletan amaituko da kabalgotak.

Leitzan ere bai

Altsasun egiten den moduan, Leitzan ere zintzarriekin kalera ateratzeko ohitura urterokoa da. Errege bezpera udaletxeko er-

lojura iritsi bezain laster, hara hurbildutako zintzarriak eta kulunkak astinduko dituzte herriko kaleetan gora eta behera egingen duten lasterka saioan. Gauerdiekin batera ateratzen direnek herriko izpiritu eta ezkutuko asmo txarrak uxatutakoan hartuko dute atseden, eta Aurrera Kirol Elkarteak antolatzen duen baratzuri-zopa jatera joanen dira, elkarteak plazan duen egoitzara. Ilbeltzeko gauak hotzak izaten dira, eta zerbaitekin berotu behar barrenak.

→ A. Amilibia-I. Arrizurieta

herri aldizkariak

Edurne Elizondo

Eguberrietako ohiturak

Guaixe aldizkariak, urte sasoiari loturik, Eguberrietako ohiturak Sakanan ditu hizpide abenduak alean. «Eguberrietan ohitura anitz biltzen dira. Gure herriko jendiaresin eskerekin bat egin zuten Kristautasunaren ekarrierekin. Jesusen jaiotza eta neguaren etorrerak bat egiten dute egun berean, eguzkia indaberritzen hasten denean. Eguberrietako ospakizunetan ere urte amaierakoak ditugu, urte berriaren etorrera ospakizunak. Bai suak eta bai urak ere garrantzi handia hartzen dute Eguberrietako ohituretan». Aldizkariak

besteak beste, Gabon egurra eta emakumeen bileratxoak eta sorgin afariak ditu mintzagai. «Gabon gauaren suaren inguruan ohiturak antzinatasun handia dauka. Antzinako ohitura izanik eta oso hedatua izan den seinalea da enborra adierazteko hitz aberastasun ikaragarria baitago euskaraz.

Jose Maria Satrustegik *Solsticio de invierno* liburuan enborra adierazteko honako hitz hauek jaso zituen: buru, mozkor, moskor, botatzen da sura baita eskaleengatik ere. Egurraren istoriotik emakumeen bileretara eta sorgin

afarietara egiten du salto. «Burundako herrietan gainera, emakumezkoak elkartzen ziren Gabon gauan txokolatea eta kafea hartzera, 12:00etako meza eta gero kuadrilako baten etxean biltzen zen neska taldea.

Bestalde, sorgin-afariak edo ordu txikitik egiten diren jatorduak ezagunak dira. Goizaldeko ordubi eta hiruretan Letena tabernan egiten zituzten afariak gogoan ditu Ambrosio Erdozia etxarriarrak. Gauerdiko meza eta gero bildutako diru eta puskekin egindakoak.

Donesaturdiko

oilarra lumatzen
Juan Kruz Lakasta

Jose

Josek 34 urte ditu eta ez da iruindarra. Madrildarra da, Barajaskoa, baina Iruñeko Donibane auzoan bizi da, bi lankiderekin batera, Urdazubi-ko Monastegia kaleko pisu batean. Duela urte eta erdi heldu zen Iruñera, lan kontuak zirela kausa. Postu hobea lortzeko eta gehiago irabazteko aukera eskaini zioten, eta onartu zuen.

Iruñera heldu zenetik ez da bizitzen ari. Iraun egiten du, ez besterik. Ezin du lorik egin. Gauak maindireen artean bueltak ematen ditu, lokartzeke. Goizean, gainera, burukoak iletzoz eta puntutxo txuriz beterik topatzen du. Ilea erortzen hasi zaio eta bizitza osoan lehendabizikoz zahia ateratzen da. Burua maizago garbitzen du, zahia kontrako txanpua erabiliz, baina ez zaio joaten. Ilea bai, ordea: burua garbitu aldiro hatzak iletzoz betetzen zaizkio.

Gainera, dutxatik ateratzen da pisuan igotzen denean, egunero disgustua hartzen du. Egunero zertxobait loditu dela ikusten du. Iruñera heldu zenetik, zortzi kilo hartu ditu. Espainiako Gobernuak ordezkarik Francisco Javier Ansuategiren bizkarzaina da Jose, eta Iruñean nerbiostuta bizi da, kikilduta, izututa. Tentsioaren astuna dela eta, Iruñera heldu zenetik gutxitan egin du irri. Irribarrerik kasik ez du egin. Haatik, joan den larunbatean gogotik egin zuen irribarre, barre, barre algarra.

Nagusiarekin eta hainbat poliziarekin batera, Jarraik Atrabian antolaturiko kontzertura jaitsi zen Jose. Nagusiak *ETA-kumeen* burua deitu zuen, eta esan zion ezin zutela egin ekitaldi politikorik. Gazte jarraituak «zergatik?» galdetu zion. Nagusiak «baimentzeke dago-elako» erantzun zuen. Jarraian, Nagusiak esan zion kontzertua ere ezin zutela egin. Gazte kima luzeak, kontzertua egiteko baimena bazutela azaldu ondoren, berriz ere «zergatik?» galdetu zuen. Nagusiak pentsakor geratu zen une batez, eta azkenean «rocka ez zaidalako gustatzen» erantzun zuen. Joseri grazia egin zion erantzun horrek, eta barre algartan lehertu zen, Iruñera heldu zenetik lehendabizikoz, bai eta azkenekoz ere. Madrileren bueltan bidali dute Jose. Berriro uniforme berdea jantzi beharko du. ●

Santiago Cervera

Nafarroako Gobernuko bozeramailea (UPN)



1. Hoberena emaitza ekonomikoak izan dira. Enplegua sortu da, eta espainiarren errenta hobetzen ari da. Suspertze ekonomikoak, gainera, konfiantza ematen dio jendeari.

2. Dudarik gabe, makurrena uztailaren 12an gertatutakoa izan zen, Miguel Angel Blancoren hilketak gordin-gordinen erakutsi zigulako terrorismoaren krudeltasunak egin dezakeen mina. Alde onik ere izan zuen, herritarren erreakzioa benetan txalogarria izan zen.

3. Urte berriari lasaitasuna eskatuko nioke arlo politikoan. Politikariek alde batera utz dezatela politikakaria, eta gizartearen esanetara egon daitezela herritarren benetako arazo eta eskakizunei erantzuteko. Errenta hobea, enplegua, etxebizitzak, pentsio oparagoak... Hori da jendeak eskatzen duena, eta guk ahalegin guztiak egin behar ditugu helburu horiek lortzeko.

4. Neuretzat, lanean jarraitzeko gogoia eskatzen dut. Osasun Sailean zeregin ugari daukagu. Arlo horretan ezinezkoa da helburu guztiak betetzea, beti daudelako premiak, baina gutxienez bide zuzenetik joaten salatuko gara.

Mikel Bujanda

Euskalerrira Irratiko zuzendaria



1. Liburu bat da, Jimeno Jurioren *Nabarra, historia del euskera* liburua. Maisulana da, benetan manual bezala funtzionatu beharko lukeena. Ezkutatu zaigun historia bat ematen du aditzera, ongi dokumentaturik, eta erdaldunek ere ezagutu beharko lukete, urteak eman duen lanik mamitsuena eta interesgarriena izan da eta.

2. Ez da deus pertsonala, baina urtean barrena Euskal Herria izan diren jenero guztietako heriotzak aipatuko nituzke. Heriotza traumatikoak, alde batetik borroka armatuak eragindakoak, baina baita beste jenerotakoak ere. Auto istripuen fenomeno guztiz larria da, batez ere gazte jendearen artean, eta aurtien ere horrelako asko izan ditugu. Horiek eta lan istripuak izan dira eman behar izan ditugun berri tristenak, Arakil-

Uharteko tren istripu larri hura ahaztu gabe.

3. Euskal Herriaz ari bagara, 1998ari bakea eskatuko nioke, liskarari irtenbidea topatzea, eta herri honentzat hain kaltegarri diren heriotzak ez gertatzea.

4. Niretzat osasuna, eta gure irratia-entzatzat lizentzia.

Estitxu Arozena

Bertsolaria



1. 97ko gauzarik onena osasunarekin pasatu dudala urtea eta 98ra ailegatu gara.

2. Euskal Herriko gizartearen egoera. Jarrerak, elkartu beharrean, gehiago bereiztu direlako.

3. Euskal Herriarentzat bakea, baina ez normalean ulertzen den moduan, bake alternatiboa baizik.

4. 98ari zoriontsua izatea eskatzen diot.

Juanjo Iturralde

Zaldiko Maldiko elkartekoa



1. Ez da erraza. Osasuna ez da igo, Indurain hortik dabil... Beno, Euskal Herria bidea ireki nahi duen hirugarren gure horrek, nahiz eta arazoak eduki, gauza onak ekarri dizkigu. Badago konbentzimendua gauzak aldatu behar direla, esparru diferenteetatik egin da gogoeta gauzak elkarrekin egiteko. Oztupoak egon arren, filosofia ona da pentsatzea gauzak elkarlanean egin behar direla.

2. Txarra izan da bideak ez direla irekitzen ikustea. Madrilén itxikeria handia nabari da: giza eskubide onarrikioenak ere ez dira errespetatzen, presoek sakanaketak bere horretan segitzen du, Herri Batasunako Mahai Nazional osoa espetxeratu dute, elkarriketarako egon

Xabier Diaz Esarte

Idazlea



1. Neuri dagokidenez, esan dezaket urte hasieran neure buruari jarritako hainbat helburu eta lehentasun bete egin direla, neurri batean. Adibidez, salatzen ari naiz nire aisialdia hobeki kontrolatzen, eta ikasi dut lan profesionalari mugak jartzen ere. Horrek pozik nago.

Bestalde, politikagintzan edo gizartearen herri honetan bakea lortzeko sortu den ekimen bateratu hori, ez dakit nola delako, hirugarren esparru edo dena delako hori. Niretzat horren sorkuntza oso positiboa izan da, oso ekimen itxaropentsua izan da.

2. Aurreko puntuarekin lotuta dago. Bakegintza prozesu horretan, badakigu oso korapilatsua dela, baina alde guztietatik oztupoak jartzen ari dira. Horrek nahiko porrot utzi nau eta nire inguruko jende asko ere nahiko jota ikusten dut. Batez ere uztailaren eta orain abenduaren berri bizi izan dugun egoera tamalgarri horrek kristoren eragina izan du niregan eta nik ezagutzen dudana jende askorengan. Eta gero, Nafarroako politikagintzan, nik esango nuke boterea duten talde politikoen ikusten dudana ohiko politika, politika oso aspergarria, ez dutela inolako iniziatiba berririk proposatzen; zenbait arlotan, gainera, politika atzerakoia erakutsi dute, bai UPNk eta baita PSNk ere. Bi alderdi horiek azpimarratuko nituzke.

3. Gustatuko litzaidake zerbait positibagoa ikustea. Politikagintzan hau izan da niretzat urterik gogorrena, azken hamarkadan. Agian itxaropen gehiegi nuen eta dena bertan behera gertatu da. Nahiko obsesiboki bizi izan dut azken urteko politikagintza; pentsatzen nuen azkenean argia ikusiko genuela, eta berriro betiko hormaren kontra jo dugu. Argi gehiago eskatuko nioke urte berriari auzi honen inguruan.

4. Lehen aipatu dudana prozesuari heldu nahi diot berriro. Nire bizitza beti oso desorekatuta egon da eta nik ez dakit ezetz esaten kanpotik etortzen zaidan ekimen askori, eta bide hori jorratu nahi nuke, hau da, nire aisialdia gehiago kontrolatu eta lanari mugak jartzearena. Baina gauza bat da gure nahia eta beste bat jainkoena, eta askotan gure

Urte zaharra atzean utzita, ge itaunduek ohikoa eskatu diote urte berriari: baa, osasuna eta lana.

Urteberri iritsi da. Batek baino gehiagok oraindik Urtezaharreka pasatu gabe izanen badu ere, ondoren datozenek joan den urtearen balorazioa egin eta heldu denean dituzten itxaropena aldu dizkigute. Urte zaharraz eta urte berriaz galdetu diegu ondoren datozenei, eta hona zer erantziak dieten derrigorrezko lau galderei.

→ Testuak: Edurne Elizondo Juuz Lakasta Ana Unanue ←

1. Zein izan da zuretzat 1997. urte(gauzarik onena)? 2. Eta gauzarik edo berririk txarra? 3. Eter eskatuko diozu, oro har, Nafarroarentzat? 4. Zer eskatu diozu urte berriari zuretzat?

nahiak ezin ditugu gauzatu, gizarte honetan besteen eragina oso handia delako, eta gure bizitza besteen esku dagoelako neurri batean. Horregatik egunerokoari eskatzen diot zerbait, eta askotan pozik geratzen naiz gauza txikiak lortuz gero.

Aingeru Epaltza

Idazlea



1. Nafarroari eta euskarari dagokionez, hobereana izanen litzateke aurtengo matrikulazio datuak, azken batez hor ikusten delako gero eta nafar gehiagok egiten dutela euskararen aldeko apustua. Bestalde, albiste on gisa ekarriko nuke Euskararen Unibertsitatearen istorio horrek egin duen aitzinamendua, badakirrelako autoantolaketa baten hasiera.

2. Politikaren munduak ekartzen digun noraeza, noraez etengabea, noraez orokorra, eta gainera beste ekimen guztiak motelizten, geldiarazten eta batzuetan erroteratzen dituzkiguna.

3. Arestian aipatu dudana noraeza bukatzea. Neretako noraeza bukatzeko abiapuntua bakea da. Abiatzeko eta norat ailegatu nahi dugun jakiteko, herri honetako bakea behar du, gutxienezko bake bat, nahiz eta batzuetan bake artifiziala izan daitekeen.

4. Idazle naizen aldetik, urte oparoa oparitu diot neure buruari: hor badut liburu bat bukatu nahia, eta liburu hori bukatzea, eta hor bada itzulpen bat egina, eta itzulpen horrek bere bidea aurkitzea. Ikastolen Elkartearen lehendakaria naizen aldetik, momentu honetan ikastolek dauzkaten arazo guztiak amaitzea. Hori bai dela zaila. Horretarako Nafarroako bertze Gobernu bat eskatu beharko nuke.

Mari Jose Beaumont

Itoizko Koordinakundeko abokatua



1. Berririk hobereana izan da epaitegiek behin eta berriz ebazti dutela aurtien Itoizko urtegia eta Nafarroako ubidea legez kanpo daudela.

2. Ildo beretik, berririk txarra izan da arestian aipatu ebazpenok ez dutela ondorio praktikorik, errealik, eduki izan ere, presoak eraikuntza lanek aurrera segitzen dute.

3. Jakina, gai berarekin segituz, urte berriari eskatzen diot Itoizko urtegiari behin betiko balioko duen irtenbidea emateko, eraikuntza lanak gelditzeaz harago joango dena.

4. Neuri dagokidenez, urte berriari eskatzen diot zaharrean baino lan gutxiago

egin behar izatea ahalguztiduna dela, uste duen botere politikoari aurre egiteko.

Iker Lain, Mattin

Hemendik At taldeko kantugilea



1. Guretzat onena izan da diskoa atera dugula. Hor kanta geneukan, eta hortik diskoa ateratzea oso berri pozgarria izan da taldeko kide guztientzat.

2. Guretzat, talde bezala, berririk txarra nik eduki dudana auto istripua izan da. Hilabete daramat etxean geldirik, eta beste hilabete geratzen zait. Kontzertuak genituen egiteko, eta ezin izan dugu deus egin. Otsailera arte geldirik egon beharko dugu.

3. Osasuna eta askatasuna eskatzen diot urte berriari, eta horretaz gain, gauza asko, esate baterako, ea presoak Euskal Herria ekartzen dituzten, eta ea Euskal Herria behingoz burujabe izaten den.

4. Niretzako eskatzen dut udan kontzertuak ateratzea, eta kontzertu horiek ongi egitea. Ea aurrera egin dugun, eta, 98an ez bada, 99an beste disko bat ateratzen dugun.

Patxi Zabaleta

HBko parlamentarioa



1. Joan den urte honetan ez da egon gauza on berezirik edo azpimarragarriak. Politikan eta gure herriko gora-beheretan ez da izan aldaketa funtsezkorik. Arazoak bere horretan segitu dute. Beste arloetan, kultura eta aurkikuntzean, badaude gauza politak. Azpimarratuko nuke nik euskal kulturak gero eta nabarmenago duen heldutasuna, azken egunotan Durangon ikusi ahal izan duguna, jakintza arlo guztietan present dagoelako. Iduri du, gainera, are

maila goragoetara iristeko zorian dagoela.

2. Atsekaberik handiena izan da, zalan-zarik gabe, HBko Mahai Nazionalaren epaiketa eta espetxeratzea. Eskandalua izan da. Zuzendaritza politiko oso bat ekintza politiko soil batengatik, hauteskunde politiko batzuen kanpainen egingako gorabehera batengatik, preso egoitea eskandalu izugarria da. Eskandalu horrek denboran zehar adieraziko du bere maila eta garrantzia, baina ez da bat-bateko gora-beheretan agortzen den zerbait. Neurri handi batean baldintzatu du gure herriaren etorkizuna.

3. 1998ari eskatuko nioke behin betiko bakegintzako bidea eta egin behar diren urratsak egin ahal izateko baldintzak ekartzea. Urte berria izateko bakerako elkarriketak hasiko diren urtea.

4. Pertsonalki, beste liburu polit bat atera eta nire alabek kurtsoak nola aurrera ateratzen dituzten ikusi, osasun ona eduki, lan asko egin eta horrelakoak.

Begoña Errazti

EAKo parlamentarioa



1. Ez da erraza berri on bat aukeratzea. Urte zaila, konplikatu izan da, eta polit-polit ez zait ezer bururatzen. Igual euskal abertzaletasunaz zabaldu genuen eztabaida, Zabal Zabalk izeneko plátformarekin hasi genuena. Hortik bide berri bat ireki zen, eta gero beste bat *hirugarren gure*-aren inguruan. ELA rekin eta Elkarri-rekin batera batzuk horren aldeko apustua egin dugu, eta hori ere berri ona izan da gure herriarentzat.

2. Giro txarra egon dela. UPNk krispazio handia sortu du gizartearen, eta PSNren konplizitate izan du. Hori oso gogorra izan da, gehiegizkoa. Miguel Sanz ikusi dugu euskararen eta euskal kulturaren kontra. Parlamentuan izugarriko blokeoa ikusi dugu UPNren eta PSNren artean, eta ez aurrekontuetan bakarrik. Etsailak bihurtzen dituzten jarrerak erakutsi dituzte, eta hori oso arriskutsua da gizartearen. Tolerantzia giroa sortu beharrean, krispazioa sortu dute euskal munduaren kontra.


3. Normaltasuna. Gero eta gehiago kostatzen zait denon ahotan dabilen demokrazia hitz hori erabiltzea, eta horixe eskatuko nuke normaltasuna, egiazko demokrazia, euskal munduaren kontra jarrerak alde batera utzita. PSNko zuzendaritza berriaren aldetik ez dut gauza handirik espero, baina agian egoera pixka bat aldatuko da, UPNk ez duelako nahi duena hain erraz lortuko. Ea zer gertatzen den.

4. Nireia oso sinplea da. Nire familiarekin eta lagunekin ongi egotea. Bi semeek aurrera egin dezatela, eta neuk kapazitatea izatea gustatzen zaizkidan gauzak egiteko eta nire jendearekin egoteko.

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Nafarroako eguraldian historiarako datuak: Tuteran, 1643-1971 (eta II)



1903.ekoa, nekez ezin farregarriagoa: urtarillaren 26an biraoaren aurkako batza sortu zen, eta abuztuaren 31n, hiriko agintariak tren geltokira joan ziren erret sendiari ongi etorria ematera. Zein izanen zen hauen aurpegia, trena ziztu bizian, gelditu gabe, pasatzen ikusterakoan. Urte honetan Ebrok berriz ere gainezka egin zuen bi alditan, maiatzaren 6an eta abenduaren 9an. 1904.eko urtarillaren bostean Ebrok eragin uholdea ikaragarrikoa izan zen, alabaina martxoan eta apirilean egin zuen lehortea ere ez zen edonolanahikoa izan. Martxoaren 4an, euria eskatzeko Santa Anari errogatibak egiten ari zitzaizkionean, Santa Anako kaperako sapaiko lanpara erori eta Elvira Diaz hil zuen. Beste euri mota zatekeen tuterarrek behar zutena, baina...

1904.ekoa bero joan zen, 200 gazte bildu zuen astolas-terrak epeldurik, baina 1905.eko urtarilla ezin hotzago etorri, zero azpitiko zapki gradurekin. Maiatzaren zazpian Ebro ateraz zen. Ekainaren 12an desbideraketa lanak bukaturik zeuden, baina orduan harria izan zen jaso gonbidatua, izan ere, abuztuaren 19an bota zuen kazkabarrak Moskerako baratza erabat txikitu baitzuen.

1906.eko otsailaren 7an Ebrok gainezka egin zuen berriz. Baita azaroaren 17an ere, Fontellasko Bokalen 5,75 metroko altuera neurtu ahal izan zenean. Abenduaren 16an ere bai. Orduz geroz zer edo zer jabaldu zen, soilik 1908.eko abenduaren 30an eta 1910.eko otsailaren 6an ateratzen baitzen.

1911.eko abuztuaren 11n euri eta haize zirimolak dena txikitu zuen. 1914.eko aste santuan, apirilaren 12an, aingeruaren jeitsiera suspenditu behar izan zen, urtetan gertatzen ez zena, goien behean

zekarren euria hain bortitz eta tematia. 1927.eko urtarillaren 10ean ere Ebro bereetatik ateraz zen. 1930.eko martxoaren 13an eta 14an berriz ere gora egin zuen. Orduan Tuteran inkomunikaturik geratu zen, bai trenetaz eta bai errepi- dez. Hil beraren 30ean bigarrenez ateraz zen, baita apirilaren 20an, maiatzaren 6an eta azaroaren 17an. Nafarroako aldundiak 70.000 pezetatiko kreditoa eman zuen dikeak konpontzeko, berandu baina. 1933.eko martxoaren 12an gainezka egin zuen harzara. 1935.eko urtarillaren 30an -9°C egin zuen, eta martxoaren 13an uholdea berriz. 1936.eko apirilaren 24ko uholdeak kalte handiak egin zituen baratze guztietan. 1937.eko urriaren 28koak Tuteran berriz ere inkomunikaturik utzi zuen -Bokalen 6,10 metro-. 1838.eko urtarillaren 8, 1939.eko urtarillaren 1, 8 eta 15, eta 1940.eko otsailaren 25an berriz ere ateraz zen. Azken honetan errepi-dea moztuta geratu zen.

1948.eko abuztuaren 16an harria bota zuen. Hain izan zen latza, ezen zezenketa bat antolatu zen Iruñean kalte-tuentzako dirua ateratzeko. Luis Miguel Dominguín eta Julian Marin toreatzaileek ihardun zuten dohainik, urriaren 12an. Urte batzuk beranduxeago, Tuterako Isi-

dro Marin toreatzailea ere, oinez ateraz zen Valentziaruntz, uholdeetan kaltetutakoen alde. Mendeko uholderik larriena 1952.eko 3an izan zen. Aldundiak 200.000 pezeta eman zuen. 1956.eko maiatzaren 26koa ikusgarria oso bazen ere -Castejon 7 metroko altuera zuen ibaiak- ez zen hain larria gertatu, Tuterarako ura alorretan geratua baitzen. Urte hori ere arras hotza izan zen, eta otsailaren 2an -9°C egin zuen. 1960.eko abenduaren 31 eta 1961.eko urtarillaren 1 eta 2an Ebroko urak berriz ere hiriko karriketan sartu ziren paseoan. 1966.eko azaroaren 7an botatako erauntsiak Ebro aterarazi zuen, abenduaren 31n bezala. 1968.eko urtarillaren 2an, 3an eta 4an Ebroko altuera larriki igo zen, baina dike berriei esker ez zen ateraz. 1970.eko abenduaren -10°C egin zuen, eta 1971.eko urtarillaren 2 eta 3an -11°C. Hauxe izan zen, Ebro, Tuteratik igarotzerakoan, hormatu zen azken aldia. Tuterako kamoin edo hormena, nahiz uholde edo erauntsiena, idatzizkoan ere, badu berea, morbosoen ororen gustagarri. 1871.ean Keiles ateraz zeneko bi lan baditugu, egile ezagunik gabe-koa bata *Reseña de la horrible y desastrosa inundación habida en Tudela con motivo de la avenida del Queiles*, Tuteran, Domingo Castilla, 1871 eta Domingo Miranda batena beste *Reseña de la inundación de Tudela ocasionada por el río Queiles* Zaragozan, Vicente Andres, 1871-.

Fray Joakin Santa Barbara-koak 1827.ean, euskaraz zein erdaraz, karrikaritutako erla-gintzazko idazkian, 1822.eko neguko hotzen berri eman zigun: «1822garren urtea izan zan txit otza, legorra ta Erribera aetan izan oi dan loreric escasenetacoa».

etorri ahalean

Patziku Perurena



Bihotz mutuak testigu

A tzoko gauez, Iruñeko Erregeren Palazioan hil zen Karlos II Gaiztoa 1387an, eta hantxe hilotzik dago gaur goizez, mahai baten gainean, buruz gora, larru gorritan, luze etzana. Erregeren fisikoak, orduan gehienak bezala, judutar kasta-ko Samuelek, kanibeta zorrotz batekin urratu dio sabelaldea, eta esku biak odoletan blai dituela, han ari zaio, meatzaria lurpean bezala, bularpeko sekretu guziak aztertzen.

Organu guziak ongi haztatu eta, zainak banan banan errotik moztu ondoren, han ateraz ditu Errege nafar sonatuaren barrenkiak plizti plaztaka mahai gaine-ra. Gero, gibel alde batera, birrikak bestera, giltzurdinak, behazuna... «Hara bihotza, gure misterio guztien testigu mutu» esan dio alboan «pitxela» eskuan zai daukanari. Zarrast! zainetik moztu, eta beste organoetatik bereiz, estainuzko pitxerran sartu du esku beteko bihotza. Eta beste tripaki guziak, pitxer haundiago batean, aldeztu aurretik hamaika espezie exotikoz igurtzi ondoren, usteldu gabe, sekula guziko testigu, beren hartantxe iraun dezaten.

Ondoren, Errege defuntuaren organoak honela banatu dira, berak desio zuen bezala: bihotza Uxueko Andramarigana; beste tripaki guziak Orreagako Amagana, eta gorputz azkar barrenustua, egungo oilaskoak merkatura bezalatsu, Iruñeko Andramari Erreginagana.

Eta atzenean, eskribauak, gastu guztien akta jaso du: epezi-zeroak 50 xueldo, pitxergileak 33 diru; Erregeren «txermoni» partitzaileak, zaldia barne, 154 florin, zirujau odolzaleak hiru halako, eta eskribauak berak, auskalo zenbat gehiago. Denak judu kastakoak. Erregeren inguruko negoziatar, hil ondoren eta pozikago, putreak bezala itsastan zirenak.

Ustekoz duzu literatura sensazionalita merkea egiten ari naizela; ez bada; ertaroko errege erregeinek eta printze printzesak

halaxekoa zuten beren ohitura eta desio sakratua: hil ondoren, beren gorputzeko organoak zati-tu, eta beren guztizko santu eta santei eskeintzekoa. Baina, gerora, herri xeheari ere gustatu egin, nonbait, usuario noblea!

Arano, Elduaian eta Goizuetako dermioak elkar mugatzen duten ingurutsuan, ezaguna da Abaden Gurutzea lekuizena. Hantxe hil zuten 1779ko urriaren 27ko ilunabarrean Don Thomas Arribillaga apezta. Sortzez leitzarra. Marilesakeneko semea, eta apezteuz geroztik Arano-ko elizako benefiziodun. Mendiz joaten omen zen Leitzatik abere gainean, egunero meza ematera. Baina gonakontu ilunak tarteko, neskaren anaiek hil omen zuten tiroz, eta bertan labanaz tripak ateraz ondoren, bihotza kendu eta, gauez joanda bere etxeko leihoan utzi, plater-txo polit batean, oroigarritako edo...

Leitzako auzo berean, 1944ko martxoaren 10etik 11rako gauean, Eskolabeneko borda suak kizkaki zuen. Etxeko nagusia, arreba eta morroia salako haberi lotu zituzten diru eta erliki guziak kendu; eta etxabereak barren, su eman omen zioten jitoek etxe guziari, eta hanka egin. Biharamon goizean, errauts artean, bihotz gorri bat odol bizitan besterik ez zen azaldu, eta hura etxeko Fraxkanttoni Astibia neskaxarrarena, sorgina zelakotz Jainkoak erre gabe utzia.

Dudarik ez, bihotz inozente horiek, bakoitzak gobernatu zuen kontzientziaren lekuko gelditu zaizkigula. Izan ere, antigoleko jende askorentzat, «bihotza» baitzen kontzientziaren organoa eta «burua» sentimenduena, orain «burmuinaz» pentsatzen dugula hain begibista-koa denean, inoiz bestela izan zitekeenik ere sinesgaitz egiten zaigun arren.

Horregatik leitu dut atsegin haundiz *Hitzzen Ondoeza*, eta bihotz inozenteon lekukotza hartuz, egin urtatsean gorazarre.

Ziria

• Motxorrosolo •

Enkontruak

J ENDE TXURIA GUREAN. BAIEZKOA EMATEKO BETI PREST. KARRIKA meharra omen zen baina, nonbait, agurrik ez genuen merezi. Urte anitz igaro dira, aurpegian arrastorik ez, pratikan aldiz. Baiezkoa bere ezipainetatik adituko duzun ia erretolika bakarra. Irripar mizkatua urte sasoiaren marka. Txertorik ezean, nola edo hala jasan behar.

Rafael Leoz Yoldi Kanpanjolea

«Eskua baino gehiago, abilezia behar da ezkila jotzeko»

Egunotan maiz entzun dira ezkila hotsak. Urte berriari etorrera emateko kanpai dangadak oraindik ahaztu gabeak, Hegoaldean ospatzen den Errege egunekoetarako prestatzen ari da Rafael Leoz, Iruñeko katedraleko kanpanjolea. 30 urte daramatza *Maria* katedraleko ezkila handiena jotzen.

RAFALEK INDARRA BAINO gehiago abilezia behar dela dio, bi metro eta erdiko diametroa, hamabost zentrimetroko garaiera eta 12.015 kiloko pisua duen ezkila jotzeko. Kanpanjoleak ez bezala, sueto eta ozenki hitz egiten baitu kanpaiak.

■ Zertan datza kanpanjolearen lana?

Urteko egun jakin batzuetan kanpaia jo behar izaten dut eta, era berean, ezkila zaintzeaz eta garbitzeaz arduratzen naiz.

■ Zein dira egun jakin horiek?

Urtean hogeit bat dira. Eguberrietan esanguratsuenak dira Eguberri bezpera, Eguberri eguna, Urteberria eta Errege eguna. Horietaz gain, badira ezkila entzuten den beste egun garrantzitsuak ere: Aste Santua, Sanferminak, San Saturnino eguna, Santu Guztiena eta elizako partaideren bat eta Nafarroako presidentea hiltzen denean, besteak beste.

■ Noiztik jotzen duzu Iruñeko katedraleko ezkila?

Badira 30 urte katedraleko ezkila jotzen dudala. Afizioagatik hasi nintzen. Garaian Pedro Zozaya ezkila zaintzaile ofiziala eta haren emazte Petra Diez arduratzen ziren ezkilaz. Haiei laguntzen hasi eta utzi zutenean jarraitu egin nuen. Askok gustatzen zitzaidan, eta gaur arte.

■ Izanen duzu egun bat besteak baino gustukoagoa kanpaia jotzeko.

Egun guztiak gustatzen zaizkit. Etxea katedralaren ondoan dut eta txikitatik entzun izan dut kanpaien dangada, asko gustatzen zait eta gozatu egiten dut.

■ Esku ona behar da kanpaia jotzeko?

Ez. Eskua baino gehiago abilezia behar da. *Maria* ezkilaren mihia mugimenduan jarri eta erritmo jakin bat mantenduz jotzean datza. Oso maite dut *Maria* eta ongi zaintzen saiatzen naiz. Kolpe ezberdinak dira. Hildakoak direnean, berrogeita



LUIS AZANZA

hamar dangada motel jo behar izaten dira, hamar segundoko tartean. Ospakizunak direnean, bestelakoak dira, alaiagoak eta luzeagoak. Urteberrian ordu laurden egoten naiz, eta Errege egunean ordu erdi inguru.

■ Katedraleko ezkilaren batek izanen du historia berezirik.

Maria Pedro de Villanuevak 1584an egina da. Katedraleko kokatu ahal izateko kupula kendu behar izan zuten, kupula

osoa hartzen duelako. Espainian erabiltzen den ezkila handiena da, 12.015 kiloko pisua baitu. Horren adierazgarri da ezkilak daraman idatzia: *Maria dut izena, 100 kintal pisatzen dut eta sinetsi nahiz ez nauenak eraman nazala gainean*. Gainera, *Maria* jotzen dudanean Iruñerri osoan entzuten da.

■ Kanpaiak jotzeko modua asko aldatu da?

Ez gehiegi. Garai batean beza-

soslaia

Rafael Leoz Yoldi kanpanjolea Iruñeko Katedraletik oso gertu bizi izan da eta bizi da, Redin kaleko bigarren zenbakian, hain zuzen ere. Txikitatik entzun izan du Mariaren

danga eta gustuko zuenez, haren kargu egitea erabaki zuen duela 30 urte.



Hiriburuan gehien maite duen txokoa Alde Zaharra da. Bizitzeaz gain, bertan egiten baitu lan. Aitak utzitako iturgindegia du bere gain eta iturgin aritzen da harat eta honat. Dena den, oinardekorik ez duenez, Santo Domingon duen behartokia itxi egiten du erretiroa hartzen duenean.



Osasuna futbol taldeko zalea, hamalau urtetik

bazkide da. Futbola ikustera ez doanean, lagunekin ardo baso-erdiak hartzen, egunkaria irakurtzen edo paseoak ematen igarotzen du denbora. Aurki, erretiroa hartuko badu ere, *Maria* bisitatzen jarrituko du, indarrak dituen bitartean behintzat.

la egiten den arren, katedraleko gehienak, eskuineko dorreko laurak batik bat, elektrifikatuak daude. *Maria* eta *Kuria* -kaletik ikusten dena- dira argindarrez funtzionatzen duen motoreak ez duten bakarrak. *Maria* ere elektrifikatu nahi izan zuten, baina alferrik. Danga oso ezberdinak ditu, eta, jotzen duzun aldiro erritmo ezberdina daramanez, ezinezkoa da. Pisua ere izan zuen zerikusia. Ezkilak oso karga handia du, eta mugiarazteko jarri zioten motoreak erre egiten zuen. Beraz, eskuz egin behar da nahi-taez.

■ Lan handia ematen du?

Ez gehiegi. Mihia sustengatzen duten unamak eta kordak noizean behin, gastatzen direnean, aldatu egin behar izaten ditut. Bestela ez du aparteko lanik ematen. Ezkilak zaintzea ez da batere zaila. Nolanahi ere, noizean behin ongi erreparatzen dut arrailadurarik baduen edo ez. Elektrifikatua ez dagoen dorrean badugu bat arrailatua eta ez du balio jotzeko. Diotenez, apusturen batean piztatu zen.

■ Beraz, erraz zartatzen dira?

Bai, oso erraz. Garbitzen ari zarenean ezkilaren junturan trapuren bat sartu besterik ez duzu eta mihiarekin ukitu bezain azkar arrailatzen da. Kolpea ongi jotzen ez duenez, piztatu egiten da. Itxuraz gogorak diruditen arren, kontu handiarekin jo behar dira.

■ Zuk urte asko daramazu *Maria* ezkila jotzen. Baduzu ordezkorik uzten duzunean?

Ez. Noizean behin igotzen da baten bat ezkila jotzera, baina ez dut jarraitzailerik. Ezkila-danda lehiaketak egin direnean etorri izan dira Iruñeko Pablo Sarasate Musika Kontserbatoriotik. Lagunduko zaituztela esaten dizute, baina lehiaketa bukatu eta gero ahaztu egiten dira. Bi urtetan egin izan da norgehiagoka, duela zortzi eta bi urte, baina ezkilak jotzeko norbait behar denean, inor gutxi igotzen da dorrera ni laguntzera.

■ Zer eskatu diozu urte berriari?

Joan den urtekoa bezalakoa izan dadila. Orain arte bezala jarraitu nahi nuke, osasuntsu eta lanean.

→ Irene Arrizurieta

Nafarkaria

Egunkaria

• ostirala • 1998ko urtarrilaren 2a

BEKARIO!

ZALDI ERDA



Nafar Kronika

Kike Diez de Ultzurrun

Uraren gaineko bakea

ARTIKULUXKA HAU IRAKURLEEN begietara iritsi orduko, borts egunei jarraitutako bertze hainbat gau joanak izanen dira paper zuria letra beltzez moldatu unetik eta urte berria bi eguneko umegorria bertzerik ez da izanen. Azalpen argigarri horiek nahitanahiez eman behar dira gurea bezalako herri batean, gertaerak zuriatik beltzera igarotzen baitira egunaren argia gauaren ilunera iragaten den bezala. Alde horretatik, Bilboko ekimen bateratua artameingo elur handia bezainbateko lastertasunez urtu zen, edo, urtu zuen, urtuarazi zuen Irungo gau euritsua tarratatutako bala madarikatuak, bertzera erranik, PPko zinegotziaren hilketak. Biharamunean, jende aunitzen itxaropena erreka zolara zen jautsia, pozaren sentimendua lehert eta zanpart eginga. Hori begibista-koa zen, baita itsu ibili nahi izan dutenentzat ere.

Ondotik, bitxia izan da zinez ELAko Elorrietari zenbait girotan, giro hertsia eta trinkoetan leporatutakoak saindutasunetik infernu gorriara bota ondoren. Hitzez lumatu dute, bizkarreratu diote maribista-ko eta aprobetxategi izatea, abaguneaz baliatu izana bere burua puzteko, eta bertze. Al, eta betiko leloa, zuria ala beltza, ez omen dago muturrez kanpoko topagunerik. Hala izatera, non kokatzekoak ote dira nire belarriek somatzen dituzten jendearen nahiak?

Ba, dena delako elkargune edo ur emari horretan, oraingoz behintzat. Bertzela jakin badakite ez dela sekulan hautsiko setati baino setatiago eta elkarri bazka ematen dirauten bi mutur uharkazaleen jokabide hilgarria. Ea, beraz, urteberriko ur emariak bere gainean bakea eta osasuna ekartzen dituen. Halabiz.

gure aukerak

KONTZERTUAK

► **Igantzi:** Lorelei taldeak musika kontzertua eskainiko du etzi, 21:00etan, Biltokian.

► **Iruñea:** Elizan **Josetxo Goia-Arriberen** saxo eta biolontxelo kontzertua izanen da bihar, 20:30etan.

► **Bera:** **Josetxo Goia-Arriber** kontzertua eskainiko du etzi, 12:00etan Altzateko elizan.

ERASKUSKETAK

► **Leitza:** Udaletxean Gure herria, gure kirola herri kirol erakusketa ikusteko aukera dago urtarrilaren 6ra arte. Astegunetan 19:00etatik 21:00etara egonen da zabalik; igandeetan, 12:00etatik 14:00etara.

► **Iruñea:** Artadi talde ekologistak **Ibilaldi bat Amazonetako oihanean barna** argazki erakusketa antolatu du Nabarrerria kalean dagoen Zabaldi elkartasunaren etxean. Lanak heldu den ilbeltzaren 9ra arte ikus daitezke 17:00etatik 21:00etara.

► **Iruñea:** Iñigo Manterolaren margoak ikusteko aukera dago Alkerdi aretoan urtarrilaren 15era arte. Igandetan itxita badago ere, astelehenetik larunbatera 18:00etatik 21:00ak arte zabalik dago.

► **Iruñea:** Zapateria aretoan **Alexander Calderren** artelanak daude ikusgai urtarrilaren 11a bitartean. Lanegunetan 18:00etatik 20:30etara, eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.

ANTZERKIA

► **Corella:** Alhama taldeak Errauskine antzezlan aulau-

ratuko du, bihar, 17:00etan, M^a Villar Diaz Fundazioan.

► **Elizondo:** Gortari txotxongilo taldeak **Herrialde urdina** antzezlan aurreztuko du, etzi, 17:00etan, Arizkunenean.

► **Iruñea:** Nafarroako Antzerki Eskolan **La hora verde** lana taularatuko da gaur, bihar eta etzi, 18:30etan.

BESTELAKOAK

Bera: Garikoitz Berasaluzek, Harkaitz Canok eta Iñigo

Iruetagoienak prestatu duten ikus-entzunezkoa eta poesia uztartzen dituen **Bi itzal** ikuskizunaz gozatzeko parada dago bihar, Gure Txokoa elkartearen, 20:00etan.

► **Iruñea:** Iruñeko Jaiotza Egileen Elkartek jaiotza paratu du Kontuen Ganbarak Antsoleaga karrikan duen egoitzan. Jose Mari Redinek eginiko jaiotzan San Saturnino eliza eta inguruko karrika eta etxeak ikus daitezke. Jaiotza barruko patioan dago ikusgai 09:00etatik 19:00ak arte lanegunetan.

► **Erratzu:** Elkartean Alaska **Ander Olaizolaren** diapositiba emanaldia izanen da, gaur, 20:00etan.

► **Iruñea:** Elkar artisau elkarteak Gabonetako azoka zabaldu du Takonerako parkean urtarrilaren 6ra arte. 10:00etatik 14:00etara goizez eta 17:00etatik 22:00etara arratsalde. Halaber, Egu-berri taldeak eta San Nicolas elkarteak Yanguas eta Miranda parkean jarri dute berea. Ordutegia, aurrekoaren bera.

Harri Fiction

Urdirzo-Lacostini

ZUZA berria egitean, arrisku guztiak hartu ditugu gogoan

Beno, gehienak

ZUZA
berriarekin
zuzen
zuzenean
2002

